

ZIGORRAK ETA ARAUAK

Piratak ankerrak eta lotsagabeak baziren bai, baina arauak zorrotz betetzen zituzten. Hauek hautsiz gero benetan zigor gordin eta gogorrak izaten zituzten. Helburua araua hautsi zuenari gogor ordain araztea izaten zen, baina bide batez gainontzeko piratei beldurra gorputzean sartzeko ere aprobetxatzen zuten.

Ez pentsatu hau piraten kontua bakarrik denik. Gure oraingo egoeran ere antzera gertatzen da, arauren bat hautsiz gero multa jartzen digute, baimenik gabe kalean paseatzen dabilenari esaterako.

ARAUAK: Piraten Kodea deitzen zaio. Tripulazioaren parte izan nahi bazuten ongi bete behar zituzten. Honakoak dira:

1. Itsasoa zure bizia da. Itsasontzia zure etxea.
2. Tripulazioa zure familia da, eta beraiek bezala zaindu eta maitatu behar dituzu.
3. Zure ahotik ez da sekreturik irtengo.
4. Altxorrek tripulaizoarekin bananduko dituzu.

ZIGORRAK: Zigorrek jartzerakoan oso krudelak izan ohi ziren. Zigor hauen gogortasuna ulertzeko kontuan izan behar dugu piraten gehiengoak ez zekiela igeri egiten. Honakoak izaten ziren beraien zigorrak.

1. TABLOITIK IBILTZEA: Zigortua eskuetatik lotzen zuten eta ontzitik ateratzen zen tabloi batetik ibili arazi egiten zuten. Egoera pixka bat larriagotzeko apasta (karnada) botatzen zuten uretara marrazoak edo beste animaliak gerturatzeko.




2. MAROONING: Abandonaturiko uharte batean uzten zen zigortua. Zenbait kasutan ur botila bat eta pistola bat uzten zioten bere buruaz beste egin nahi bazuen. Batzuetan hondar zati batean uzten zuten. Marea igotzen zen neurrian hondar zatia desagertu egiten zen, beraz sufrimentua ikaragarria izaten zen.



3. KILLATIK PASATZEA: Zigortua soka luze batekin lotzen zuten. Soka hori untziaren aspialdetik bota eta beste aldetik tira egiten zuten. Arrastaka eramaten zuten zigortua ontziaren aspikaldetik beste alderaino. Normalean itota bukatzen zuen.



4. LEPOTIK ZINTZILIKATZEA: Zigor guztietan itsusiena zen hau. Ohorerik ez zutenentzat erabiltzen zen.



Ongi ulertu al duzu? Ikus dezagun galdera hauek erantzuteko gai zaren ala ez.

1. Ze izenez ezagutzen dira piraten arauak?
2. Zenbat zigor desberdin erabiltzen zituzten?
3. Zer ez zekien egiten piraten gehiengoak?
4. Zein uste duzu zela zigor krudelena? zergatik?